



Galtzagorriak

Aspaldi aspaldian, ba omen zen Baionan denda bat, zubi zaharraren ondoan. Denetarik saltzen zuten bertan; baina zerbait harrigarri eta bitxia nahi zuenak ezkutuko ate batetik barrena sartu behar zuten.

Goiz batean, gizon batek zabaldu zuen ate hura eta dendariari belarrira zerbait xuxurlatu omen zion. Ezkutuko tiradera bat ireki eta egurrezko kaxa zuri bat esku artean hartu zuen dena orratz-ontziz betea. Orratz-ontzi bakoitzean, lau mamarru txiki bizi ziren; pertsona itxurakoak, eta galtza gorri batzuek jantzita. Gizonak bat aukeratu eta, ederki ordaindu ondoren, bere lurraldera joan zen berehala.

Hurrengo goizean, atera zituen galtzagorriak orratz-ontzitik eta agindu zien lur sail osoa gobernatzea. Gizonaren baratzeak eta soroak ikaragarri handiak ziren baina galtzagorriak, berealdiko indarraz eta abiaduraz, baratzea landarez hornitu eta belazeak belar finez bete zituzten.

–Zer egingo dugu orain? –Galdetu zioten berehala.– Gizonak agindu zien basoa garbi-garbi uzteko bat ere sasirik gabe.

–Eta orain zer egingo dugu? – Konturatu zenerako, ondoan zituen galtzagorriak lan-eske, berriz ere.

Agindu zien orduan, ibaiko arrain guztiak putzu bakar batean biltzea...

Gero beste lan handi bat bete zuten, eta beste bat, eta beste bat...

Ia ez zekien zer gehiago eskatu. Egun argia zen oraindik eta galtzagorriak zereginik gabe gelditu ziren. Eta alferkerian beren burua ikusita, alde egiten bazuten? Hala egiten zuten mamarrutxo horiek ez ba zien lan bat berehala agintzen.

–Zer egingo, zer egingo? Badakit! Galbahe bat hartu, eta erreka ura bertan sartuz etxe-aurreko putzua bete.

Galtzagorriek ahaleginak egin zituzten, baina galbahearen ipurdiko zuloetatik ateratzen zen ahotik sartzen zen adina ur.

–Lan hau ezin da egin – Haserre esan eta alde egin zuten betiko.

Galtzagorri haiek ezin izan omen zituen inork harrapatu eta belardi gozoetan bizi omen dira. San Joan gauean ibiltzen dira su festen inguruan. Beraz, orratz-ontzi txiki bat hartuta atera gau horretan, agian ikusiko dituzu galtzagorriak eta orratz-ontzian sartuta etxera hurbildu.

Itziar Zubizarreta. Sasi Guztien Gaietarik. Galtzagorri Elkarteak.